takuntza beharrak. Urteko prestakuntza-plana diseinatzen dugu. Aurten, ordea, kanpoko enpresa bati eskatu diogu gure prestakuntza beharren diagnostikoa egitea. Eguneroko bizitzak kutsatu gabeko ikuspegia lortu nahi genuen, ikuspegi ezberdina alegia. Enpresa bat gure prozesuak eta alorrak aztertzen ari da, zuzendaritza taldearekin, koadro teknikoarekin, arduradunekin eta plantako langileekin batera, hauek beren lana eta prestakuntza beharrei buruz iritzia eman dezaten, datozen bi urteetarako prestakuntza planifikatzeko, 2007 eta 2008rako.

**-Ezagutzen al duzu Euskadiko Lanbide Heziketa? Zer iruditzen zaizu?**

- Ezagutzen dugu, baina galdaketarena oso sektore espezifikoan da, eta gure inguruan ez dugu behar dugun eskaintza profesionala. Zentro Teknologiko-ekin lan egiten dugu Urtzaileen Elkartearen bidez, gure alorreko prestakuntza espezifiko eskaintzen duena. Esaterako, galdaketa ikastaroa Azterlanek antolatzen du, Durangon kokatutako Metalurgika Ikerketa Zentroa, eta normalean praktiketan dagoen jendea izan ohi dugu han. Batzuetan LHko jendea etorri da lanera, baina haien artean ez da sektore erakargarria, beste lan mota bat nahiago dute. Sektore hau gazteentzat erakargarriagoa izan dadin saiatzen ari gara. Galdaketa desberdina da gure inguruan ditugun Lanbide Heziketako espezialitate estandarrekin alderatzen badugu (Elektrizitatea, Mekanizazioa, Elektronika, Automatismoa, Delineazioa, etab.). Lan gogorragoa, zakarragoa eta deserosoagoa delako ustea dago, baina azken urteotan laneko baldintzen hobekuntzan inbertitzen ari gara eta oraingo funtzioak ez du zerikusirik aurrekoekin. Guk gure enpresan lan egiten duten pertsonengan sinesten dugu, guk uste dugu gurekin egin behar dutela haien garapen profesionala, elkarrekin hazi gaitzen eta proiektu komun bat eskaini diezaiogun. Bestalde, puntako sektorean gaude, berritzailea dena eta hazten ari dena, internazionalizatu dena... hortaz asko daukagu eskaintzeko. Sektore eolikoarentzat osagaiak egiten ditugu, eskakizun maila handiarekin, teknikari zein zerbitzuari dagokionez, eta horrek langile bakoitzaren ekarpena oso handia izatea dakar. Oso erronka pertsonal garrantzitsua da, eta nahi duenak asko dauka ekartzeko.

**- Kontratazioak egiterakoan, nola baloratzen duzue prestakuntza mota? LH kon-tuan hartzen duzue? Eta generoa?**

- Prestakuntza oso positiboa da guretzat. Gure ustez, galdaketan sartzen diren pertsonen ibilbide bat izan behar dute, garatu eta hazi behar dute, eta prestakuntzarekin sartzen den jendeak errazago eskuratu ditzake enpresako beste lanpostu batzuk. Dena dela, sartzen den pertsona oro barneko prestakuntza jaso ohi du aurretik. Generoari dagokionez, eta zuzeneko eskulanari buruz ari garela -bulegoetan gehienak emakumeak dira-, beti indarrarekin identifikatutako lana da, baina badira emakumeek burutu ditzaketen lanak ere. Nahiz eta industria astuna den, piezak ez dira eskuz mugitzen eta gorpuzkera ezberdintasunak ez dira hain diskriminatzaileak. Oraindik asko dago egiteko alor honetan, gauza probatzea eta aurreratzea da. Dena dela, eta egia esateko, emakumerik ez zaigu etorri bere burua zuzeneko eskulanean aritzeko eskainiz. Antzeko zerbait gertatzen da eraikuntzarekin, non ia langile guztiak gizonezkoak diren, eta emakumeok muga psikologikoak ditugu lan-



"Guk gure enpresan lan egiten duten pertsonengan sinesten dugu"

"Galdaketa gazteentzat sektore erakargarri bihurtu nahi dugu"

"Creemos en las personas que trabajan en nuestra empresa"

"Queremos hacer de la fundición un sector atractivo para los jóvenes"

como empresa, del mercado al que nos dirigimos, etc. Diseñamos un plan de formación anual. Este año, sin embargo, hemos optado por encargar un diagnóstico externo de nuestras necesidades de formación. Hemos querido tener una visión no contaminada por el día a día, un punto de vista diferente. Una empresa está analizando nuestros procesos y áreas, de manera muy participativa junto con el equipo directivo, el cuadro técnico, encargados e incluso con personal de planta, para que opinen sobre cómo ven su trabajo y sus necesidades formativas, con el objetivo de realizar una planificación de cara a la formación a dos años, para 2007 y 2008.

**-¿Conoce la Formación Profesional en Euskadi? ¿Qué opinión le merece?**

- La conocemos, pero estamos en un sector muy específico como es el de la fundición, y en nuestro entorno no tenemos oferta del tipo de profesional que necesitamos. Trabajamos con Centros Tecnológicos a través de la Asociación de Fundidores, que realiza formación específica en nuestra área. Por ejemplo el curso de fundición lo realiza Azterlan, el Centro de Investigación Metalúrgica ubicado en Durango, y normalmente tenemos gente en prácticas de allí. En ocasiones sí que ha venido gente de F.P. a trabajar, pero para ellos no es un sector atractivo, prefieren otro tipo de trabajo.

Estamos intentando hacer que este sector sea más atractivo de cara a los jóvenes. La fundición suena muy diferente a las especialidades estándar de Formación Profesional que tenemos en el entorno (Electricidad, Mecanizado, Electrónica, Automatismos, Delineación, etc.). Se tiene el concepto de que es un trabajo más duro, áspero e incómodo, pero en los últimos años estamos invirtiendo en mejorar las condiciones de trabajo y la fundición de ahora no tiene nada que ver con las de antes. Nosotros creemos en las personas que trabajan en nuestra empresa, pensamos que tienen que realizar con nosotros su desarrollo profesional, de manera que crezcamos juntos y les ofrecemos un proyecto común. Por otro lado estamos en un sector puntero, innovador, en crecimiento, internacionalizado... por lo que tenemos mucho positivo que ofrecer. Hacemos componentes para el sector eólico, con un alto nivel de exigencia tanto técnico como de servicio, lo que hace que la aportación personal de cada trabajador sea muy alta. Es un importante reto profesional en el que quien quiera tiene mucho que aportar.

**- A la hora de las contrataciones ¿Cómo valoráis el tipo de formación? ¿Se tiene en cuenta la F.P.? ¿Y el género?**

- Valoramos la formación positivamente. Pensamos que las personas que entran en la fundición tienen que tener un recorrido, desarrollarse, crecer, y el hecho de que entre gente con formación hace que tengan una proyección mejor para acceder a otro tipo de puestos dentro de la empresa. De todos modos, todo el que entra pasa previamente por una formación interna.

En cuanto al género, y en mano de obra directa -en oficinas lo predominante son las mujeres-, es un trabajo que siempre se ha identificado con la fuerza, pero hay algunos puestos que pensamos que se pueden cubrir con mujeres. A pesar de ser una industria pesada, no se mueven las piezas a mano y las diferencias de complejidad física son cada vez menos discriminatorias. Es un terreno en el que hay mucho camino por recorrer, es cuestión de probar y de ir avanzando. De todos modos, la verdad es que nunca ha venido ninguna mujer a ofrecerse para trabajar en mano de obra directa. Es un poco como pasa en la construcción, donde casi

"Emakumea industriako lanpostuetan sartzea langile gabezia osatzeko falta den oxigenozko baloia izan daiteke"

"La incorporación de la mujer en puestos industriales puede ser el balón de oxígeno que hace falta para cubrir la falta de trabajadores"

postu jakin batzuetarako. Zentzu horretan aldakuntza bat beharrezkoa da.

**- Zer nolako harremana dago zuen enpresa eta Lanbide Heziketako ikastetxeen artean? Zeintzuk dira elkarrekin burutzen dituzuen jarduerak eta zeintzuk uste duzuzustatu beharko liratekeela?**

- Esparru teknikoetan, administratiboetan, arriskuen prebentzioan, mantenuan, mekanizazioan... praktiketan dabilen jendea daukagu. Baina berriro ere diot sektore hau ez dela oso erakargarria gazteentzat, aurretik ere aipatu dudan legez. Sustatu beharreko ekintzei dagokienez, uste dut ikastetxeek enpresetako praktiken jarraipena hobetu dezakete, eta beste alde batetik, ez araututako barne prestakuntza Lanbide Heziketako Ikastetxeetara eraman beharko litzatekeela. Interesgarria izango litzateke, ikastetxe bakoitza Lanbide Heziketako familia batean espezializatuta badago ere, beste esparru batzuk ere besarkatzen saiatzea, izan ere, gure kasuan adibidez hurbilen daukagun zentroa Durangon dago.

**-Zer nolako beharrak dituzte barneko prestakuntzari dagokionez?**

- Hainbat adar daude, zuzentzen ari garen merkaturia dela eta ezagutza teknikoak behar ditugu eta baita pertsonen garapenerako gaitasunak ere, gure ustez langileek profesionalki hazi behar dutelako, eta lanpostu altuagoak eskuratu ahala zuzendaritzan, pertsonen kudeaketan etab.etan prestakuntza zehatz bat behar duzu, eta horregatik esparru horiek ere lantzen ditugu. Prestakuntzak etengabekoa izan behar duela uste dugu. Batek pentsa dezake karrera amaitzean ikastea ere amitu dela, eta ez da hala, bizitza osoan zehar ikasten jarraitu beharra dago. Ezin dugu gelditu.

**-Nola baloratzen dituzue prestakuntza eta birziklapeneko jarduerak betetzeko dauden ekintzak eta programak?**

- Guk harreman handia daukagu Urtzaileen Elkartearekin, nazio mailako entitatea, eta haiek

todos los operarios son hombres, y las mismas mujeres tenemos barreras psicológicas a la hora de vernos en determinados puestos. Hay que evolucionar en este sentido.

**- ¿Qué relación existe entre vuestra empresa y centros de Formación Profesional? ¿Qué tipo de acciones conjuntas se llevan a cabo y cuáles crees que deberían impulsarse?**

- Tenemos gente en prácticas en ámbitos técnicos, administrativos, en prevención de riesgos laborales, mantenimiento, mecanizado... Pero insisto en que este es un sector con menos atractivo para los jóvenes por todo lo que hemos comentado anteriormente. En cuanto a acciones a impulsar, pienso que se podría mejorar un poco el seguimiento de las prácticas en las empresas desde los centros, y por otro lado, intentar externalizar la formación interna no reglada a Centros de Formación Profesional. Sería interesante que, aunque cada centro esté especializado en una familia de Formación Profesional, intentara abarcar otros ámbitos, ya que por ejemplo en nuestro caso, el centro que más cerca tenemos actualmente está en Durango.

**-¿Qué necesidades tenéis en cuanto a formación interna?**

- Hay varias ramas, necesitamos conocimientos técnicos por el mercado al que nos estamos dirigiendo y también en habilidades de desarrollo de las personas, porque entendemos que los trabajadores tienen que crecer profesionalmente, y según vas accediendo a puestos más altos necesitas formación en liderazgo, gestión de personas, etc. por lo que también trabajamos esos ámbitos. Entendemos que la formación tiene que ser constante. Uno piensa que cuando termina la carrera se acabó el estudiar, y para nada, hay que seguir aprendiendo toda la vida. No se puede parar.

**-¿Cómo valoráis las acciones y programas que existen en este momento para cubrir las acciones de formación y reciclaje?**

- Nosotros trabajamos mucho con la Asociación de Fundidores, una entidad a nivel nacional, y ellos mismos sacan cursos que pueden interesar a las fundiciones, relacionados con las nuevas legislaciones como la Ley de Medioambiente, etc.

**-¿Crees que la F.P. da respuesta a las necesidades de las empresas?**

galdaketei interesatzen zaizkien ikastaroak antolatzen dituzte, legeria berriarekin erlazionatuta daudenak, hala nola, Ingurugiroari buruzko Legea, etab.

**-Uste al duzuz LHK enpresen beharrei erantzuten diela?**

- LH oinarritzko prestakuntza da, baina behin langilea enpresan dagoela, sektore, kultura eta alor bakoitzaren jarduteko erara eta beharretara egokitu behar du. Enpresa bakoitza mundu bat da eta LHK eskaintzen duen prestakuntza oinarritzkoa eta orokorra da eta gero enpresa bakoitzari egokitu behar zaio. Egokitzapen hau motzagoa edo luzeagoa izango da, Lanbide Heziketako ikastetxeko prestakuntzaren espezifikazio mailaren arabera. Hori da sektore honean daukagun handicap-a, ez dugula gure inguruan espezializatutako zentrorik. Bizkaitik datoren jende asko daukagu, baina lanak asko motibatu behar ditu langileak ez dezaten alde batera utzi bere etxetik hurbilago dagoen lanpostu bat topatzean.

**-Uste duzue emakumea industriako lanpostuetara sartzen bada profesionalak aurkitzeko problematika konponduko dela?**

- Dudarik gabe, emakumea industriako lanpostuetan sartzea langile gabezia osatzeko falta den oxigenozko baloia izan daiteke. Alor honetan garapenerako ahalmen handia daukagu. Erakargarriago bihurtu behar dugu eta galdaketaren irudia aldatu, egun lehenago baino baldintza hobeak baititu.

**-Zurea kasu bakana da, edo emakume enpresariak laster ikusiko ditugu tradizioz gizezkoak diren karguak betetzen?**

- Gero eta emakume gehiago egongo dira. Beste sektore batzuetan ere ikusten ari gara, esaterako, banketxeetan, non ia gehiengoak emakumezkoak diren. Industria arloan denok aldatu beharko genuke txipa, muga psikologikoak gainditu, eta horretarako funtsezkoa da hezkuntzaren gaia, era aurrerakoian landu behar dena. Oraingo gazteek eskema sozial ezberdinak dituzte guk genituenekin alderatuta, eta horrek zentzu honetan aurrera egitea ahalbidetuko du. Aurrera doan prozesua da eta ez dago atzerako bueltarik, nahiz eta ez den berehalakoa izango. Denbora behar da, ohituz joan behar dugu. Oraindik ere kanpora goazenean atek zabalduz goaz, esaterako Zuzendari Komertziala eta biok Alemaniara kongresu batera joan ginenean, harrিতa geratu ziren galdaketaren ordezkaritzat bi emakume ikusita. Hau pentsaezina zela ere esaten ziguten. Gizonezkoen sektorea da eta aldaketa kulturala beharrezkoa da.

**-Zer nolako hobekuntzak uste duzue beharrezkoak direla prestakuntzan enpresaren beharrei erantzuteko?**

- Lankidetzat handia behar da enpresa batek behar duen profil profesionala LHtik irteten diren gazteen prestakuntzara egokitzen joan dadin. Elkarren arteko harremana beharrezkoa da eta etengabekoa behar du izan, enpresaren beharrik ezagutu daitezten. Horretarako, oso interesgarria izango litzateke prestatzen ari diren pertsonak era aktiboan aritzea enpresetan, lanpostua ezagutzeko eta prestakuntza benetako beharrei egokitu ahal izateko.

**-Zer esango zenieke beren prestakuntza bukatu duten gazteei?**

- Esango nieke argi izan behar dutela ikasketak amaitzean ikaskuntza ez dela amaitzen. Funtsezkoa da bizitza osoan zehar ikasten jarraitzea. Era berean, lan-mundura inongo lotzarik gabe sartzeko aholkatuko nieke, ez baita ezer gertatzen hasieran pixka bat galduta egoz egatik. Prestakuntza eta ikaskuntza etengabekoak dira, hala maila profesionalen nola labo-ralea edo sozialean ere.

- La F.P. es una formación de base, pero una vez que el trabajador está en la empresa, tiene que adaptarse al saber hacer y necesidades de cada sector, de cada cultura, de cada área. Cada empresa es un mundo y la F.P. aporta formación básica y genérica que después hay que adaptar a cada empresa. Esa adaptación es más corta o más larga dependiendo de lo específica que sea la formación del Centro de Formación Profesional. Ese es el handicap que tenemos en ese sector, que no contamos con un centro especializado en nuestro entorno. Tenemos mucha gente que vienen de Bizkaia pero el trabajo tiene que ser muy motivador para que el trabajador no se vaya en cuanto encuentre un puesto más cerca de su casa.

**-¿Pensáis que la incorporación de la mujer a los puestos industriales puede solucionar la problemática que existe de encontrar profesionales?**

- Sin duda, la incorporación de la mujer en puestos industriales puede ser el balón de oxígeno que hace falta para cubrir la falta de trabajadores. Es un campo en el que tenemos un amplio potencial de desarrollo. Hay que generar atractivo y cambiar la imagen de la fundición, que hoy en día tiene unas instalaciones mucho mejor adecuadas para el trabajo que antes.

**-¿Eres un caso aislado, o la presencia de mujeres empresarias o en cargos directivos en sectores industriales tradicionalmente masculinos va a ser una realidad inmediata?**

- Cada vez va a haber más mujeres. Lo estamos viendo en otros sectores como la banca, en los que ya casi están predominando las mujeres. En el ámbito industrial tenemos que cambiar el chip un poco todos, quitarnos barreras psicológicas, y para eso es fundamental el tema de la educación, que hay que trabajar de forma progresiva. Ahora los jóvenes tienen esquemas sociales distintos a los que hemos tenido nosotros, y eso va a hacer que se vaya avanzando en este sentido. Es un proceso progresivo y totalmente irreversible, aunque no inmediato. Hace falta tiempo, hay que ir adecuándose. Todavía cuando salimos fuera vamos abriendo puertas, por ejemplo la Directora Comercial y yo asistimos a un congreso en Alemania y sorprendió mucho el que llegaran dos mujeres representando a una fundición. Incluso nos decían que eso allí sería impensable. Es un sector de hombres y hace falta un gran cambio cultural.

**-¿Qué mejoras ves necesarias en la formación para responder a necesidades de la empresa?**

- Hace falta mucha colaboración para que cada vez se vaya ajustando más el perfil profesional que necesita una empresa a la formación con la que los jóvenes salen de la F.P. Tiene que haber una relación mutua y continua para que se conozcan las necesidades de la empresa. Para eso sería muy interesante que las personas que están formando tuviesen una presencia muy activa en las empresas, para conocer el puesto de trabajo y poder ajustar la formación a las necesidades reales.

**-¿Qué mensaje lanzarías a los jóvenes que terminan su formación?**

- Les diría que tengan claro que cuando terminan los estudios no termina el aprendizaje. Es fundamental seguir aprendiendo toda la vida. También que se lancen al mundo laboral sin complejos, que no pasa nada porque al empezar estén un poco perdidos. La formación y el aprendizaje son continuos, tanto a nivel profesional y laboral como a nivel social.



"Emakume zuzendari eta enpresariaren hazkundera aurrera doan eta atzerako bueltarik ez daukan prozesua da"

"El incremento de mujeres directivas y empresarias es un proceso progresivo y totalmente irreversible"



• **Prestakuntzarako bide guztiak** •

BIZITZA OSOAN ZEHARREKO PRESTAKUNTZA

Lan-mundua

**Etengabeko Prestakuntza**

Etengabeko Prestakuntza enpresen eta langileen eskura dagoen aukera da, beren ezagutzak eguneratzeko eta lehiakortasun-mailak hobetzeko. Ikastaroak zuzenean edo teknologia berrien bidez eman ahal izango dira (e-learning)

**MODULU-KATALOGOA**

Prestakuntzak dituen eskumen-eremuetako bati lotuta dauden prestakuntza moduluekin bat etorritik diseinatutako ikastaroak

**MODULU-KATALOGOTIK KANPO**

Ikastetxeek diseinatutako ikastaroak enpresen beharrei erantzuna emateko.

**Eskaintza Partziala**

Heziketa zikloen antolamendua ordutegiaren malguagoa den eskaintza baten bidez.

**Gaitasunak ezagutzeko eta egiaztatze sistema**

Langilearen lan-esperientzia eta arautu gabeko prestakuntza ebaluatzen, ezagutzen eta egiaztatzen da.


**Lanerako prestakuntza**

Lanik gabe dauden langileak berriro prestatzera eta birziklatzera zuzendutako prestakuntza

**Agiri profesionalak**

Agiria lortzeko probara aurkeztu ahal izateko prestakuntza. Lan zehatz batzuk egitea baimentzen duen agiria: instalatzaileak...

HASIERAKO PRESTAKUNTZA



• **Todos los itinerarios formativos** •

FORMACION TODA LA VIDA

Mundo Laboral

**Formacion Continua**

La Formación Continua es la herramienta a disposición de empresas y trabajadores para actualizar sus conocimientos y mejorar sus niveles de competitividad. Los cursos se pueden impartir de forma presencial o a través de las nuevas tecnologías (e-learning)

**CATALOGO MODULAR**

Cursos diseñados de acuerdo con el conjunto de módulos de formación asociados a una de las unidades o ámbitos de competencia que conforman la cualificación.

**FUERA DE CATALOGO MODULAR**

Cursos diseñados por los centros formativos para dar respuesta a las necesidades de las empresas.

**Oferta Parcial**

Organización de los ciclos formativos mediante una oferta más flexible en el tiempo.

**Sistema de reconocimiento y certificación de competencias**

Se evalúa, reconoce y certifica la experiencia laboral y formación no reglada del trabajador

**Formación ocupacional**

Formación dirigida a la recualificación y reciclaje profesional de trabajadores desempleados

**Carnets profesionales**

Formación que posibilite presentarse a la prueba de obtención del carnet. Carnet que autoriza realizar determinados trabajos: instaladores...

FORMACION INICIAL



**Bizitza osoan zeharreko prestakuntza bereziki langile aktiboiei eragiten dien gaia da. Eguneratuta egotea eta merkatuko nobedadeak ezagutzeko, birziklatzea edo jardueraren esparru berriak lantzea gakoa da gero eta lehiakorragoa den inguru batean. Hiru lurraldeetako langileekin hitz egin dugu haien esperientziari buruz.**

30

**La formación a lo largo de toda la vida es un tema que afecta especialmente a los trabajadores en activo. Mantenerse al día y conocer las novedades de su mercado, reciclarse o abordar nuevos campos de actividad resultan claves en un entorno cada vez más competitivo. Charlamos con trabajadores de los tres territorios sobre su experiencia.**

## "Nire gaitasunak titulu batekin egiazkotzat ezagutu dituzte"

**Jesús M<sup>a</sup> Chicak duela gutxi Erdi Mailako Teknikari titulua lortu du Mekanikan eta Elektrizitatean.**

- Zein izan da zure ibilbide profesionala eta zertan zabiltza orain?

- Hamasei urterekin hasi nintzen lanean txapista-mutil gisa; gero, urte luzez, nire kontura lan egin nuen neurea zen mekanika eta elektrizitateko tailer-reen. Gero egungo lanpostua eskaini zidaten, Eusko Jaurlaritzako mekanika eta txapako tailerrean, eta hementxe nago.

- Nola izan zenuen ikastetxeen eskaintzaren berri zure prestakuntza osatzeko eta birziklatzeko?

- Lanean jakinarazi ziguten, eta hortik aurrera harremana ikastetxearekin izan dugu.

- Zer nolako prestakuntza jaso duzue Lanbide Heziketako ikastetxeetan?

- Nire kasuan, nire ibilbide profesionala eta esperientzia Lanbide Heziketako titulazio batekin baliozkotzea izan da. Ia hamabost urtez lanean aritu ostean, nire gaitasunak titulu batekin egiazkotzat ezagutu dituzte: Erdi Mailako Teknikaria Mekanikan eta Elektrizitatean.

Ni ikasten hasi nintzanean beste garai batzuk ziren, prestakuntza ez zen hainbeste baloratzen. LH bat hasi nuen baina berehala lanean hasi nintzen eta ez nuen amaitu, hortaz ez nuen inongo titulurik. Alabaina, nire lan-bizitzan zehar mota guztietako ikastaroak egin ditut. Kasu askotan, kotxegileek bere antolatutako ikastaroak ziren, merkaturatzen diren nobedadeen ingurukoak, izan ere eguneratuta egon beharra dago eta berria den guztia ezagutu, eta beste kasu batzuetan ikastetxeetan egin izan ditut ikastaroak. Titulua lortzeko prozesua gauzatu dudana LHko ikastetxeen egiten dudana ikusi dute, nire lanpostua bisitatu dute eta, zikloko programa oinarritzat hartuta, nire gaitasunak egiazkotzat ezagutu dituzte. Era berean, zikloa osatzeko kalitate ikastaro bat egin behar izan dute eta baita DBHko azterketa ere.

- Zer ekarri dizu titulazioa izateak?

- Bizitza osoan zehar garatuz zozzen lana egiazkotzat ezagutzeko. Nire ustez beharrezkoa eta positiboa da zure ezagupenak egiaztatzen dituen titulua izatea.

- Erraztasunik eman al dizute prestakuntza-zentroan zure lana eta heziketa jarduerara batera egiteko?

- Ikastetxearekin izandako erlazioa oso ona da, eta era guztietako erraztasunak eman dizkizate; nire kasuan, nire kabuz ikasi dut, etxean, eta zuzenean azterketetara aurkeztu naiz klaseetara joan gabe. Interneten eskuragarri dagoen materialak asko lagundu dit. Gainera, uneoro irakasleen laguntza izan dut, hor egon baitira nire zalantza guztiak argitzeko.

- Zer hobekuntza proposatuko zenituzke ikastaroak eragin-korragoak izan daitezen?

- Nire ustez, LHtik iritertzen diren gazteei materien ezagutza globalago falta zaie. Hau da, asko dakite, esaterako, mekanikari buruz, baina ez karrozeriari buruz. Iruditzen zait gehiago jakin beharko luketela beste gauzei buruz eta esperientzia praktikoa gehiago izan. Lan-merkatu sartzeko baina lehen tailer txikietan praktikak egingo balituzte oso positiboa izango litzateke, asko ikasiko lukete, izan ere, lanean hasten direnean denetatik egitea tokatu zuen.

- Zure prestakuntzarekin jarraitzeko asmorik al duzu?

- Oso argi daukat eguneratuta egunera gero eta prestatuago egon beharra dagoela. Batek ezin du geldirik egon eta inoiz ezin zaio ikasteari utzi, beti ateratzen dira gauza berriak. Eguneratuta egon behar dugu merkatuak hala eskatzen duelako.



**"Nire lanpostua bisitatu dute eta, zikloko programa oinarritzat hartuta, nire gaitasunak egiazkotzat ezagutu dituzte"**

**"Han bisitatu mi puesto de trabajo y, en base al programa del ciclo, han reconocido mis competencias"**

## "He visto reconocidas mis competencias con una titulación"

**Jesús M<sup>a</sup> Chica ha obtenido recientemente el título de Técnico de Grado Medio en Mecánica y Electricidad.**

- ¿Cuál ha sido tu trayectoria profesional y en qué momento te encuentras actualmente?

- Empecé a trabajar con 16 años como aprendiz de chapista; después, durante muchos años, trabajé por mi cuenta en mi propio taller de mecánica y electricidad. Luego me ofrecieron mi actual puesto, en el taller de mecánica y chapa del Gobierno Vasco, y aquí estoy.

- ¿Cómo conociste la oferta existente en los centros para completar tu formación y poder reciclarte?

- Nos informaron en el trabajo, y a partir de ahí ya la relación ha sido con el centro.

- ¿Qué tipo de formación has recibido por parte de los centros de formación profesional?

- En mi caso, lo que he hecho es convalidar mi trayectoria profesional y mi experiencia con una titulación oficial en Formación Profesional. Tras casi quince años trabajando, he visto reconocidas mis competencias con una titulación de Técnico de Grado Medio en Mecánica y Electricidad.

Cuando yo empecé a estudiar eran otros tiempos, no se valoraba tanto la formación. Inicié una F.P. pero enseguida me puse a trabajar y no la terminé, por lo que no tenía ningún título. Sin embargo, he realizado cursos de todo tipo a lo largo de mi vida laboral. En muchos casos, cursos que organizan los propios fabricantes de automóviles sobre las novedades que salen al mercado, ya que hay que estar al día y conocer todo lo nuevo, y en otros casos, en centros formativos. En el centro de F.P. en el que he realizado todo el proceso de obtención del título han visto el trabajo que realizo, han visitado mi puesto y, en base al programa del ciclo, han reconocido mis competencias. También he tenido que hacer un curso de calidad para completar el ciclo y además examinarme de la E.S.O.

además examinarme de la E.S.O.

- ¿Qué te ha aportado el tener la titulación?

- Es un reconocimiento a una labor que vienes desarrollando toda la vida. Pienso que es necesario y positivo contar con un título que acredite tus conocimientos.

- ¿Te han dado facilidades en el centro de formación para combinar tu trabajo con la realización de la actividad formativa?

- La relación con el centro ha sido muy buena, y me han dado todo tipo de facilidades; en mi caso he estudiado por mi cuenta, en casa, y me he presentado directamente a los exámenes sin asistir a clases. El material que está disponible en internet me ha servido de gran ayuda. Además, he contado en todo momento con el respaldo de los profesores, que han estado ahí para apoyarme y responder a todas mis dudas.

- ¿Qué mejoras plantearías en la oferta de cursos de cara a que sean más efectivos?

- Pienso que a los chavales que salen de la F.P. les falta un conocimiento más global de las materias. Es decir, saben mucho, por ejemplo de mecánica, pero no de carrocería. Creo que deberían saber un poco más de todo y tener más experiencia práctica. Sería muy positivo que antes de incorporarse al mercado laboral hicieran prácticas en pequeños talleres donde aprenderían mucho, porque cuando empiecen a trabajar les va a tocar hacer de todo.

- ¿Tienes idea de continuar tu formación?

- Tengo claro que cada día hay que estar más preparado. Uno no puede estancarse y nunca se para de aprender, siempre salen cosas nuevas. Tenemos que estar al día porque lo demanda el mercado.

BIZITZA OSOAN ZEHARREKO IKASKUNTZA

31

FORMACION A LO LARGO DE TODA LA VIDA

## Sergio Rámila eta Andoni Herboso, ABARIK-en bazkide sortzaileak "Merkatuak eguneratuta egotera behartzen zaitu"

**Santurtziko San Jorge Institutuan Instalazio Elektroteknikoen Goi Mailako Teknikaria izateko ikasketak amaitu ostean, bi gazte hauek, beste bi gelakiderekin batera, Barakaldon kokatutako kooperatiba bat eratu zuten, instalazio domotikoetan eta energia berriztagarrietan espezializatua.**

- Zein izan da zuen ibilbide profesionala?

- **Andoni Herboso:** Instalazio Elektroteknikoen Goi Mailako Teknikaria ikasi genuen.

- **Sergio Rámila:** Hortik aurrera gure aldetik hastea erabaki genuen. Ikasketak 2002ko ekainean amaitu genituen eta enpresa 2003ko maiatzean sortu genuen. Ikasturte amaieratik ikastaroak egin genituen domotikaren eta energia berriztagarrien gaiari buruz gehiago jakiteko, alor horietan etorkizuna zegoela ikusi genuelako.

- Hori da zuen enpresaren jardueraren nagusia, baina, zein formula juridiko aukeratu zenuten?

- **S.R.:** Enpresa tipologiaren ikastaro bat egin genuen eta merkatua eta dauden enpresa motak ere pixka bat ezagutzen genituen. Kooperatiba aukeratu genuen, non dena denona den. Horrela, lanera jende berria sartzen bada, kide gisa egin dezake. Guk uste dugu gehiago inplikatu dela enpresa berea bada.

- Nola izan ohi duzue ikastetxeen eskaintzaren berri zuen prestakuntza osatzeko eta birziklatzeko?

- **S.R.:** Ikastetxeko ikasle ohiek eskutitzak bidaltzen dizkigute prestakuntza eskaintzarekin, eta gainera ikastetxearekin oraindik ere harreman handia daukagu. Deitu ohi digute ikastaro berririen bat aterako dela jakinarazteko. Orain termikako gaiarekin eta erakuntzarako kode tekniko berriekin sartuko gara, eta ikastaro onak bilatzen ari gara. Zerbait berriari ekiten diozunean ezagutzen egin behar duzu, teoria behintzat jakin behar duzu. Ikastaro hauek oso eguneratuta daude, eta geroago garrantzitsuen merkatuan mugitzen jakitea bada ere, oinarri teoriko egokia izan behar da.

- **A.H.:** Merkatuak eguneratuta egotera behartzen zaitu.

- Zer nolako prestakuntza jaso duzue Lanbide Heziketako ikastetxeetan?

- **A.H.:** Ia beti domotikarekin eta energia berriztagarriekin erlazioan zuten ikastaroak egin ditugu. Bere garaian merkataritzako gaiak buruzko bat ere egin genuen, enpresa kudeaketari buruzkoa, etab. Lehenago guztiok ikastaro guztietara joaten ginen. Orain, berriz, bakoitza gehien interesatzen zaizkion horietara joaten da, espezializatuz joan gara.

- **S.R.:** Bai, nik Cadem-en eguzki energiar buruzko bat egin dut, baina ia guztiak hemen egin ditugu, San Jorgen, Andonik aipatutako gaien erlazioan.

- Ikastetxeek erraztasunik eman al dizute prestakuntza ekintzararako?

- **A.H.:** Laneko ordutegitik kanpoko orduak besterik ez ditugu, horretatik ongi datorkigu arratsaldeko zazpietatik aurrera ematea; lanean ari denarentzat konponbide bakarra da.

- **S.R.:** Ezin ditugu laneko orduak prestakuntzarako erabili, batez ere gure kontura arizterakoan.

- Uste duzue beharrezkoa dela zuen prestakuntzarekin jarraitzea?

- **S.R.:** Urtero erne gabilta berria ateratzen dena ikusteko. Eguzki energia, fotoboltaikoa moduko gaietan esaterako. Gero zuri dagokizu ikertzea. Baimendutako instalatzaile agiria lortzeko ikastaroa ere egin genuen, hemen prestatzen gara gero azterketa industriaren egiteko... Eguneroko gauza berriak ateratzen dira. Orain lege berriaren ondorioz segurtasunari buruzko alderdi batzuk beharrezkoak dira. Gai asko daude eguneratuta egoteko, eta gutxienez ateratzen den guztia instalatzen jakin behar da. Teorikoki prestatuta ez bazaude zaila da. Lanean bazaude gauzak era batera egitera ohitzen zara eta eguneratzen ez bazara gelditu egiten zara.

- **A.H.:** Eta ere gehiago gurea bezalako sektore batean...

**"Oraindik ere ikastetxearekin harreman handia daukagu eta deitu ohi digute ikastaro berririen bat aterako dela jakinarazteko"**

**"Seguimos teniendo mucha relación con el centro y nos llaman cuando va a salir algo nuevo"**



## Sergio Rámila y Andoni Herboso, socios fundadores de ABARIK "El mercado te obliga a estar al día"

**Tras finalizar sus estudios de Técnico Superior en Instalaciones Electrotécnicas en el Instituto San Jorge de Santurtzi, estos dos jóvenes, junto a otros dos compañeros de estudios, fundaron una cooperativa ubicada en Barakaldo, especializada en instalaciones domóticas y energías renovables.**

- ¿Cuál ha sido vuestra trayectoria profesional?

- **Andoni Herboso:** Estudiamos Técnico Superior en Instalaciones Electrotécnicas.

- **Sergio Rámila:** A partir de ahí decidimos ponernos por nuestra cuenta. Terminamos los estudios en junio de 2002 y montamos la empresa en mayo de 2003. Ya desde el final del curso hicimos cursos para saber más sobre el tema de domótica y energías renovables, porque habíamos visto que en ese campo había futuro.

- Esa es la actividad principal de vuestra empresa, pero ¿qué fórmula jurídica escogisteis?

- **S.R.:** Hicimos cursos de tipologías de empresas y también conocíamos un poco el mercado y el tipo de empresas que existen. Nos decantamos por la cooperativa, en la que todo es de todos. De esa forma también si entra nueva gente a trabajar puede hacerlo como socio. Pensamos que se va a implicar más si la empresa es suya.

- ¿Cómo os enteráis de la oferta existente en los centros para poder completar vuestra formación y reciclaros?

- **S.R.:** Como antiguos alumnos del centro nos enviaron cartas con la oferta formativa, y además seguimos teniendo mucha relación con el centro. Suelen llamarnos para informarnos de que va a salir algo nuevo. Ahora vamos a meternos con el tema de térmica y el nuevo código técnico de edificación, y estamos buscando algún curso bueno. Cuando empiezas con algo nuevo tienes que hacerlo ya conociendo, saber por lo menos la teoría. Estos cursos están a la última de lo que sale, y aunque luego lo importante es saber moverse en el mercado, hay que tener una buena base teórica.

- **A.H.:** El mercado te obliga a estar al día.

- ¿Qué tipo de formación habéis recibido por parte de los centros de Formación Profesional?

- **A.H.:** Hemos hecho cursos relacionados casi siempre con la domótica y las energías renovables. En su día hicimos también alguno de temas comerciales, de gestión de empresas, etc. Antes todos íbamos a todo. Ahora cada uno va a los cursos que más le interesan, nos hemos ido especializando.

- **S.R.:** Si, yo he hecho alguno más de solar del Cadem, pero casi todos los hemos hecho aquí en San Jorge, relacionados con los temas que dice Andoni.

- ¿Os han dado facilidades por parte de los centros para la realización de acciones formativas?

- **A.H.:** No tenemos otras horas que no sean fuera del horario laboral, así que nos viene bien que se impartan a partir de las siete de la tarde; para el que está trabajando, es la única solución.

- **S.R.:** No podemos perder horas de trabajo para la formación, sobre todo trabajando por cuenta propia.

- ¿Creéis que es necesario continuar vuestra formación?

- **S.R.:** Cada año estamos atentos para ver qué sale nuevo. En temas como la energía solar, fotovoltaica, por ejemplo. Luego ya tienes que investigar tú. También hicimos un curso para conseguir el carné de instalador autorizado, nos preparamos aquí para luego hacer el examen en industria... Cada día salen cosas nuevas. Ahora con la nueva ley hay aspectos de seguridad que son imprescindibles. Muchos temas nuevos en los que hay que estar al día, y por lo menos saber instalar todo lo nuevo que sale. Si no te has preparado teóricamente es complicado. Si estás trabajando te acostumbras a hacer las cosas de una forma y si no te mantienes al día te puedes estancar.

- **A.H.:** Y en un sector como en el nuestro, más...

## "Nire prestakuntzari ez diot mugarik jartzen"

**- Zein izan da zure ibilbide profesionala eta zertan zabilta orain?**

-Ia lanbide guztiak izan ditut. Hamar urtez garraiolari autonomoa izan naiz, lanik gabe geratu nintzen arte, nire ogibide bakarra gidatzea izanik. Erabaki nuen lehen gauza euskara ikastea izan zen, eta liburuak hartzerakoan jakin-mina piztu zitzaidan, zurgintza ikastaro batean izena eman nuen eta gero iturgintzako beste batean. Hiru urtez aterpe batean egin nuen lan eta gero Guadalajarara abiatu nintzen Eguzki Energiari buruzko ikastaro bat egitera. Itzultzerakoan, 2002an, iturgin autonomo moduan hasi nintzen lanean eta instalatzaile agiria atera nuen.

**- Nola izan zenuen ikastetxeetako eskaintzen berri zure prestakuntza osatzeko?**

- Informazio gehiena Usurbilgo L.H.ko ikastetxetik jaso dut. Han hainbat ikastaro egin ditut. Gipuzkoako ikastetxe guztien zerrenda bat daukat, eta alde zuzenetik deitzen dut beti, urtebete lehenago ere, hurrengo urtean eskainiko dituzten ikastaroen berri izateko eta interesatzen zaizkidan horietan izena emateko.

**- Zer nolako prestakuntza jaso duzu Lanbide Heziketako ikastetxeetan?**

- Zurgintzari buruzko ikastaroak eginak nituen baina titulaziorik gabe, hortaz zur arloko L.H. l.eko titulua atera nuen nire kontura curriculum osatzearen eta araututako titulazio bat izateko. Orain Goi Mailako titulua ateratzea da nire asmoa. Sarrera-proba gainditu nuen eta Usurbilen nago matrikulatuta nire kontura Eraikin- eta Prozesu-Instalazioen Mantenu eta Montaian. Urte bakar batean egitea gus-tatuko litzaidake, baina lan egiteari utzi behar-ko nioke eta ez da erraza. Nire ustez laguntzak egon beharko lirateke berriro ere ikasi nahi dugun helduontzat, lana denboraldi batez uztea ahalbidetuko ligogeten diru-laguntzak, titulazioa lortu ahal izateko.

**-Ikastetxean, ordutegiei, etab.ei dago-kienez, erraztasunik eman al dizute heziketa jarduerari burutu ahal izateko?**

- Eskaintza bakarra dago. Nire aldetik noanez gero, irakasgai teorikoetan materialak ematen dizkirate. Klaseetara joan ahal izatea gus-tatuko litzaidake, eta are gehiago irakasle onak direla jakinda, baina ezinezkoa da. Egin ditudan ikastaroak 18.00etatik aurrerakoak dira, lan egiten dugunontzat aukera bakarra direlako.

**-Zure prestakuntzarekin jarraitzeko asmorik al daukazu?**

- Laurogeita hamar urte ditudan arte ikasten jarrai dezaket. Ez diot nire buruari inongo mugarik jartzen. Prestakuntzarako astia nire aisialditik ateratzen dut, nahiago dut ikasi tabernetan egon baino. Errorrika pertsonala da. Bere garaian ez nuen ikasi eta orain egiteko gogoia daukat. Liburuak gus-tuko ditut, hobbie bat da. Titulua ez dut behar lanean nago-elako, baina zentro ofizial batean lan egiteko ongi etorriko lit-zaidake. Asko gustatuko litzaidake ingeniari-tza energetiko bat ikastea, baina urrats batzuk eman behar dira. Unibertsitatean sartzeko kurso baten bidez egiten saiatu nintzen; hiru aldiz aurkeztu nintzen, baina oso zaila da ate-ratzea, eta are gehiago nire kontura eginez. Orain gauzei beste ikuspuntu batetik begiratzen diet, izan ere Erroak-ekin lanean dihardut, baztertutako taldeekin lan egiten duen ira-bazi-asmorik gabeko elkarte. Etorkinei iturgintzari eta elek-trizitateari buruzko oinarriko gaiak erakutsi dizkiet eta oso atsegin-garria izan da niretzat.



**Jagoba Fernándezek ikastaro ugari egin ditu bere bizitzan zehar. Ikasteari uztea ez da bere planen artean sartzen.**

**Jagoba Fernández ha realizado numerosos cursos a lo largo de toda su vida, y dejar de estudiar no entra en sus planes.**

## "No pongo ningún límite a mi formación"

**- ¿Cuál ha sido tu trayectoria profesional y en qué momento te encuentras actualmente?**

- He trabajado casi de todo. Estuve diez años como transportista autónomo hasta que un día me encontré sin trabajo y sin ningún oficio más que conducir. Lo primero que decidí es estudiar euskera y al volver a coger los libros me entró el gusanillo, me apunté a un curso de carpintería y después a otro de fontanería. Durante tres años trabajé en un albergue y después me marché a Guadalajara a realizar un curso de Energía Solar. A la vuelta, en 2002, me puse como fontanero autónomo y saqué los carnés de instalador.

**- ¿Cómo conociste la oferta existente en los centros para completar tu formación?**

- Casi toda la información la he recibido del centro de F.P. de Usurbil. Allí he hecho varios cursos. Tengo un listado de todos los centros de Gipuzkoa, y llamo siempre con mucho tiempo de antelación, incluso un año antes, para saber qué cursos van a sacar de cara al próximo año y apuntarme a los que me interesan.

**-¿Qué tipo de formación has recibido por parte de los centros de Formación Profesional?**

- Tenía hechos cursos de carpintería pero sin titulación, por lo que saqué por libre el título de F.P. I en rama madera por aumentar currículum y contar con una titulación reglada. Ahora me he fijado el objetivo de sacar el Grado Superior. Superé la prueba de acceso y estoy matriculado por libre en Usurbil en Mantenimiento y Montaje de Instalaciones de Edificio y Proceso. Me gustaría poder hacerlo en un año, pero tendría que dejar de trabajar y no es fácil. Pienso que deberían existir ayudas para los mayores que queremos volver a estudiar, alguna beca que nos permita dejar de trabajar un tiempo para obtener la titulación.

**-¿Te han dado facilidades en el centro de formación para la realización de la actividad formativa en cuanto a horarios, etc.?**

- La oferta es la que hay. Al ir por libre me facilitan materiales en las asignaturas teóricas. Me encantaría asistir a las clases, y más sabiendo que son buenos profesores, pero me resulta imposible. Los cursos que he hecho han sido a partir de las 18.00 horas, que para los que trabajamos es la única opción.

**-¿Tienes idea de continuar tu formación?**

- Hasta los noventa puedo seguir estudiando. Yo no me pongo ningún límite. Saco tiempo para la formación de mi tiempo libre, prefiero estudiar que estar de bares. Es un reto personal. En su día no estudié y ahora tengo ganas de hacerlo. Le he cogido el gusto a los libros, es un hobby. El título no lo necesito porque estoy trabajando, aunque me vendría bien de cara a trabajar en algún centro oficial. Me encantaría hacer una ingeniería energética, pero hay que seguir unos pasos. Intenté hacerlo a través del acceso a la Universidad; me presenté tres veces, pero es muy difícil de sacar, y más por libre. También estoy viendo ahora las cosas desde otro lado, ya que colaboro con Erroak, una asociación sin ánimo de lucro que trabaja con colectivos desfavorecidos. He formado a jóvenes inmigrantes en temas básicos de fontanería y electricidad y disfruto mucho con ello.

# Zentroak eraberritzea

Canciller Ayala - Gregorio Marañón BHI

Ostalaritza BHI (Galdakao)

Tolosako Paper Eskola

Zubiri - Manteo BHI

## Innovación en los centros

IES Canciller Ayala - Gregorio Marañón

IES Ostalaritza (Galdakao)

Escuela de Papel de Tolosa

IES Zubiri - Manteo

